



IZAN GAITEZEN



**Alaia
Martin
Etxebeste**



Doinua:

*Trumoa ortzi beltzean hoska
Neurri berezia*

Printze eta printzesen arteko maitasun erromantikoa ageri zaigu ipuinetan:
norbaitek salbatzen gaitu, norbaitek egiten gaitu zoriontsu.
Besteen zain, besteen mende, besteentzat beti.

Printzesa eder, printzipe **guapo**
Mari Errauskin edota **zapo**..
naranja erdirik ez zazu bila;
zeu osoa **zarelako**.
Zeure begiez bizi, eta ez
besteen **begientzako**
-egin dorretxetik **salto**-
Aske bazara ez duzulako
askatzailerik **beharko**.

Konplexuz gizen ta pisuz **lumak**,
besteentzako panpin **kuttunak**
izan gaitezen agintzen digu
sarritan gure **garunak**.
Izan gaitezke handi zein txiki,
azkarrak edo **tuntunak**,
braketdunak, **barredunak**..
Erakargarri egiten gaitu
gure **berezitasunak**.

Bizitzak dauzka hainbat **zutabe**
pozak, tristurak ta dudak **daude**..
Dena aldatzen da, ta soilik gara
geure buruaren **jabe**.
Ate bat itxi eta beste bat
zabaltzen da parez **pare**;
lotu ta askatu **xuabe**.
Edonor gabe bizi gintezke
eta edonor gu **gabe**.

Gaurrak puskatzen du **iragana**
eta egunak gaua **darama**
eta hasten den bezain natural
bukatzen da **harremana**.
Ez zazu pasa bizitza osoa
begiratzuz **beste(e)ngana**;
bila zazu zeugan **barna**:
zeu zara zeure zorionean
eragin gehien **daukana**.

Jardin handi bat duten **etxeak**
asko balio duten **kotxeak**
bikote beti irripartsuak
Instagrameko **poseak**..
Askatasuna ematen digu
topikoak **birrintzeak**
inperfektu **sentitzeak**
ipuinetan bakarrik daude
printzesak eta **printzeak**.